

EUSKARA eta KOOPERATIBAK

Egun on guztioi,

ERKIDE Federazioan, 850 kooperatiba baino gehiago elkartzen dira, guztira 44.000 langile direla. Gauza jakina da gure herriaren ekonomian kooperatibismoak indar handia izan duela betidanik, eta gaur egun ere baduela.

Eta, kooperatibek beste ezaugarri bat badute: herri ekimenetik sortuak direla. Horregatik, euskal kooperatibismoa oso lotuta izan da beti gure herriko kulturarekin eta gure hizkuntzarekin.

Kooperatibak aitzindariak izan dira euskara alor sozioekonomikoan uztartzen. Euskal kooperatibek aspaldidanik erakutsi dute ibilbide luze horretan euskal gizartearekin konpromiso estua dutela, euskararen erabilera kooperatiben eguneroko bizimoduan eta gizartean zabaltzen. Eta ibilbide horretan ERKIDE Federazioa bidaide eta lagun izan dute.

2007an Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak kooperatibetan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten. Honetaz gain, ERKIDE Federazioa LANHITZ Programaren garapenean eta BAI EUSKARARI eta BIKAIN Ziurtagirien elkarrekin elkarlanean aritzen da.

Oraingoan ere, **ERKIDE** Federazioak euskara lan munduan erabiltzeko deia egin nahi du. Lan munduan euskara ikastea eta erabiltzea gure esku dago, eta langile bakoitzak eman behar du horretarako pausua: dakienak erabiltzen, eta ez dakienak ikasten. Erramintak euskaltegiek jarriko dituzte!!

Eskerrik asko!!